


GIZONA KONPONDU Ipuiña

Zenon Uriguen
pasiotarra



AGUR BETIKO

Diego eta Nenak etxe bizitza eta lurralde ederrak eukezan Andes mendietan. Baña basa gudularien bildurrez anka egin dabe eta euren etxe eta ondasun guztiak galdurik Limara etorri dira. Nork eta zelan azaldu biotz onen atsekabea? Gogoan artu bearke dabe bein baño sarrigo euskal esaera: “**Etxetik urrun, zorionetik urrun**” Biotz muiñean sortzen iake agurraren intziria:

*Agur basetxe maite,
zorunaren abi,
agur zelai ta landa,
orlegi ta garbi,
Gudu aize zakarrak,
egin gaitu jaurti,
zori barik biotz min,
nora jun bidari?*

Diego eta Nenak seme bakarra dauke Daniel. Ikastaroa asitakoan eskolara eroan dabe. Gurasoak, barriz, kalerik kale ibilli bear jakiak etab. saltzen. Lenengo egunetan “**nun illundu, an ostatu**”.

DANIEL ESKOLARA

Daniel umeak, giro onetan, ikasiko al dau ezer? Bai zera. Bere biotza eta barru osoa saminez urratuta dagoz. Zelan liburu bati burua makurtu eta ikasteari ekin?

Ezertarako gogo

barik dago. **“Mendian jaiok mendia nai”** Maixuak berebiziko ardura artu dau mutikoaren egoera on-bideratzeko. Eta umearen burua apur bat biztutzeko Peruko mapa eder bat damotso. Mutikoak muzin egiñik esaten dau: zertarako ete da mapa ori? Maixuak, erabaki egokia arturik, amari deituz esaten dautso” “Ume au barru-barruko ondoezak jota daukazu. Urduri ta biurri bizi da. Eroan egizu etxaldera, eta urrengo ikastaroan, uste dot, egokituko dala”.



MAPA ETA GIZONA




Ama on baten maitasuna semien ezbearretan urritu ez ezik, ugaritu egiten oi da. Etxera eldutakoan amak biotz beratasun aundienagaz esaten dautso: “Zer dozu esku artean daukazun ori”? Semeak: “Maixuak emondako Peru’ko mapa” Amak mapari begiraldi bat egiñik: “Bai, egia da izan be. Auxe da gure aberri ederra.

Bera ikusirik burutasun bitxi bat datorkit: eskolan zer ikasi dozun jakiteko, mapa ori zati-zati egizu eta gero asmakaitz bat atontzen dan moduan barrero be konpondu egizu. Ori izango da gaurko zure ikasgaia Mutikoa mapa apurtu aurretik, begira ta begira egon zan alde batera ta bestera. Eta esku artean arturik zatitzen dau. Asi da laster mapa konpontzen. Asieran larri ibilli arren, andik ordu bi baño leen ederto konponduta dago. Poztasunez urturik amari erakusten dautso. Amak mapa ondo baño obeto konponduta ikustean pozarren esaten dautso: “Zer dala ta maixuak esan dau ez dozula ezer ikasten? Ikasi ta jakin barik zelan konpondu dozu ain arin Peru ´ko mapa? –Ama, nik ez dot ezer ikasi eta jakin be ez dakit zelan dan Perú. Origaitik mapa zatitu aurretik begira egon naz alde batetik bestera. Eta zorionean konturatu naz zera: maparen beste aldean, pare-parean, gizon baten irudia, maparen tamañokoa egoala. Asi naz poliki-poliki **gizonaren irudia konpontzen, eta au zoriona!: Gizona konpondurik Peru osoa konponduta geratu zan!!!**

GIZONA KONPONDU

Gizona konpondurik, Peru osoa konpondu da. Auxe da egi garbi eta jakingarria. Gizaki barne-muiñetan beti bizirik dago bere konponbidea. Konponduko al dau gizonak bere burua? “**Gizaki on-berarentzat ez dago ezinik**” Kristo gure Jaunaren asmo ta ekintza ori izan zan gizakia era-berritu bere izaeran ta bizieran. “**fede barria ta gizaki barria**” Eta gure mutikoak zer egin eban? Jazoera zoragarri ori ausnarturik, ekiñaren ekiñez, ikasgaiak burutu ditu. Irakasle ospetsua izan zan, batez be, ikasgai eder au ume guztiai erakutsirik.



Euskadi maitea, zure xede, asmo eta jokabidea auxe dozu: “**Euskal leen gaia gizakia da. (Barandiaran) ikasgai eta ekimen zoragarria dogu.**